

Labeldunen artean dago Urnietako Eula sagardotegia

# Labeldun sagardoa

**A**urreko larunbatean labeldun sagardoaren uzta aurkeztu zuten Bilbon. Sagardo guztia %100 Euskadiko sagarrarekin eginikoa izan da, eta aurkezpenean zirenek modu horretan ekoizten duten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardoa dastatu ahal izan zuten. Horien artean **Urnietako Eula sagardotegia** aurkitzen da.

Aste hauetan, beraz, Urnietako sagardogileak albiste izaten ari dira. Gipuzkoako sagardogile onenaren saria jaso zuten **Setienek** ekainaren 1ean. Oraingoan Eulakoa da albiste. Eusko Labelaren baitan ekoizten du EAEko beste hainbat sagardogileekin batera. Bilbon aurkezpenean adierazitakoaren arabera, "2012ko uzta milioi bat litro Eusko Label sagardo egin dira eta horretarako Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 200 sagastietako 1,5 milioi kilo sagar erabili dira. Pro-



**Eusko Label etiketa eramateak beraz, bi balio erantsi ditu: bertako sagarrarekin egindakoa eta kalitate handikoa dela.**

zesu guztia Hazi fundazioak egiaztatzen du. Lehenengoz eta behin sagastietan egiten dituzten ikuskaritzak, sagarrak eskatzen zaizkion baldintzak betetzen dituela ikusteko. Elaborazioa eta gainerako prozesu guztia ikuskatzen da ondoren, botilaratzeko garaian analiti-

*2012ko uzta milioi bat litro Eusko Label sagardo egin dira eta horretarako Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 200 sagastietako 1,5 milioi kilo sagar erabili dira*

kak egiten dira laborategietan eta azkenik dastatze komiteak dastatzen du sagardoa, kolorean, usaimenean eta dastamenean Eusko Label zigilua izateko beharrezko duen kalitatea betetzen duen ikusteko. Prozesu hau guztia gainditzen duten sagardoek bakarrik dute Eusko Label etiketa".

Eusko Label etiketa eramateak, beraz, bi balio erantsi ditu: bertako sagarrarekin egindakoa eta kalitate handikoa dela. 2012ko uzta 28 sagardotegi izan dira Eusko Label sagardoa egin dutenak: 21 sagardotegi Gipuzkoakoak, 6 Bizkaikoak eta 1 Arabakoa.

Aiurri 14-06-2013